

BATEK DAKI

Nerea Pérez

Irun, 17 urte

Ez zuen inoiz ezer pasatzen uzten. Inoiz ez zuen ezer ihes egiten uzten, ezta edonorentzat garrantziarik ez zeukan edozer ere. Agian, hori izan zen irabaztera bultzatu zuena. Hori edo zortea. Batek daki.

Josuk gizon motela zirudien, lasaia. Ikustera-koan goibel zirudien, ez zuen abenturarako edota arriskurako kemena zuenik ematen. Baina bera ez zen ematen zuen bezalakoa. Bera ausarta zen. Barnetik arriskua edota abenturarako atxikimendua zerion. Baina inoiz ez zuen erakusten bere alde ausarta. Dena bere buruarentzat gordetzen zuen. Bera zen bere sentimenduak ezagutzen zituen pertsona bakarra eta, denbora pasa ahala, neuk ere bere sentimenduak ezagutzen ikasi nuen. Ez zitzaidan erraza izan, baina azkenean lortu nuen. Ezagutu dudan jeniorik haundiena zen eta bera bezalakorik ez dut inoiz berriro ikusi. Zergatik? Hori jakiterik ez dago. Nirekin egon zen denboraldiak asko aldatu ninduen, asko.

Lehenengo aldiz ikusi nuenean hasi zen guztia. Unibertsitateko lagunok dirua lortzeko argitaratzen genuen aldizkarian oso gogor lan egiten nuen nik. Hango neska bakarra nintzen, eta nire lana zailena zen. Pertsonaia ospetsuei egiten nizkien elkarrizketak, beren munduari buruz zerbait

gehiago jakin ahal izateko. Ez zen erraza. Batzuetan ez zuten lagundu nahi. Behin, "klub" antzeko toki batera joan nintzen. Hara xakezaleak joaten ziren. Han norbait aurki nezakeela esan zidaten. Baina bilatzen nuenak ez zidan batera lagundu. Ezin zuen ikasle-aldizkari baterako hitz egin. Bera xakelari ospetsua zen, ospetsuegia, bere ustez, ikasle batzuk eginiko aldizkarirako hitz egiteko.

Orduan, taberna-zulo hartako txokoan gizon bat ikusi nuen. Ikusterakoan, porrot egina zegoela pentsatu nuen, baina horrexegatik, hain zuzen ere, nahi nuen guztia kontatuko zidala pentsatu nuen, eta hala gertatu zen. Berarengana hurbildu eta behar nuen elkarrizketa egiteko laguntza eskatu nion. Eta onartu zuen.

Ez jauna, ez zuan edonolako neska. Ez zekiat nola konturatu zen ni han nengoela. "Klub"era etorri omen zuan "maisuaeren" bila, elkarrizketa bat egiteko asmoz, baina berak ez omen zian hitz egin nahi izan. Kluberatu zenetik begiz jota nian neska, baina hurbildu zitzaidanean ikusi ez banu bezala egin nian. Laguntza behar zuela iruditu zitzaidan eta elkarrizketarekin laguntzeko eskatu zidanean onartu nian. Ezin nioan ezetza eman. Ikusi nuenetik liluratu nindian, ate hartatik sartu zenetik, hasieratik.

Gure lehenengo bilera pasa eta beste batzuetan ere egon ginen elkarrekin. Nik ez nuen berari buruz ezer ezagutzen, eta den-dena jakin nahi nuen. Ni jaio eta bizi nintzen munduan, aberatsen munduan, bizi izan beharrean, bere munduan bizi

behar izan banu bezala zirudien. Egia esateko, ezin izan nuen inoiz nire mundua ulertu.

Bere bizitza gustatzen zitzaidan, bere inguruko gauza guztiek erakartzen ninduten. Oso isila bazen ere, ez zitzaidan inporta, ezta nire galderei erantzuna besterik ez bazien ematen ere. Bere ondoan oso ongi sentitzen nintzen. Banekien bere barnean zerbait zegoela, atera nahi ez zuen zerbait zegoela, atera nahi ez zuen zerbait, eta nik, jakinminez, dena jakin nahi nuen. Horregatik ez zitzaidan beste ezer inporta berarekin baldin banengoen. Gure bilerak toki eta ordu berean izan ohi ziren eta ohituratzat hartu genituen azkenean.

Oraindik gogoratzen diat gure lehenengo bilera, “maisuari” elkarrizketa egin ondoren. Gero bilera gehiago izan genitian, baina ez zituan ezta haren antzekoak ere izan. Ni neure jantzi hoberekin bera txunditu ahal izateko. Baina bere anaiarekin iritsi zuan. Hau arreba atean utzi eta etxera joan omen zuan.

Bakarrik gelditu ginenean, tenisean jokatzera joanda zirela esan zidaan. Bere anaiak tenisa jokatzeko zuen jantzia nirea baino hobea zuan. Baina ez zitzaidaan asko inporta. Silbiak asko hitz egiten zian, gero eta galdera gehiago egiten zizkidaan. Nik ezin nizkioan erantzun; asko kostatzen zitzaidan berarekin hitz egitea. Hain polita zuan... Bilera asko izan genitian haren ondoren eta pixkanaka adiskidetasuna handitzen zihoan. Adiskidetasuna ala zerbait gehiago ote?

Josu da niretzat ezagutu dudan gizonik interesgarriena. Arraroa batzuetan, baina oso interesgarria. Arazo bat nuenean, begietara begiratu, gerta-

tzen zitzaidana asmatu eta ezer esan gabe, konpontzen saiatzen zen. Orduan nik, neure aldetik, dena jartzen nuen eta alaiago egoten saiatzen nintzen, bera kikil ez zedin. Biok bakar bat ginen, oso lagun onak. Agian gure artean adiskidetasuna baino gehiago egon zen, orain ez nago ziur. Agian, berak maite izan ninduen, eta orain ikusiko banindu, oraindik ere maite izango ninduke. Agian...

Silbia asko maite izan nian. Balitekek oraindik maitatzea. Ez zekiat. Berak ez zian inoiz jakin. Zerbait somatu izan balu... ez zekiat. Agian berak ere maite nindian baina... Silbia oso aberatsa zuan eta ni xakean jokatzeko zuen gizontxo bat besterik ez ninduan. Nola gerta litekeek zerbait egoera horretan? Ni bera laguntzen saiatzen nintzen bitartean, bera ni laguntzen saiatzen zuan. Adiskideak gintuan. Askotan bere karitate lana ote nintzen pentsatu diat, baina hori ez zegok esaterik, bera izan baitzen nigan interesa azaldu zuena. Eta maite banindu? Ez, ez diat uste...

Burura etortzen zait pasadizo txiki bat. Behin, nirekin arropa eroatera etorri zen. Zerbait berezia erosi nahi nuen, ni gonbidatutako festa batera elkarrekin afaltzera joan behar genuelako. Hango erregina izan nahi nuen. Han begiratu, nahi nuena hartu, eta jazten hasi nintzen. Hartu nuen arropa ikusi zuenean, bera smokingen prezioa begiratzen hasi zen. Hiriko dendarik garestiena zen, eta berak ezin zuen hainbeste diru gastatu. Beragana hurbildu eta galdetu egin nion ea smokinga erosi nahi zuen. Banekien afarirako erosi nahi zuela eta ezin zuela ordaindu. Baina ez zidan

ezer esan nahi. Orduan berak arropa erosten hainbeste diru nork gasta zezakeen ez zekiela erantzun zidan. Geroxeago gehitu zuen: “Hobeto egongo lirateke bakeroz joango balira”. Nik erosi nahi nuen soinekoa utzi, bakeroak saltzen zituzten denda batera joan eta esan nion: “Bizkor, gaur gauerako arropa erosi behar dugu eta”. Arrazoia zeukan: bakeroz joatea erosoago da.

Agian maite nindian. Nigatik egin zuena ez zuan errukiagatik izan. Bera festa batera gonbidatua zegoan. Eta ni eraman nindian. Bazekian dirurik ez nuela smokinga erosteko eta bakeroak saltzen zituzten denda batera joan gintuan. Festara bakerotan joan gintuan. Jendeak begirutzen gintian, baina berari ez zitzaioan inporta. Oso ondo nengoean berarekin. Eta esan zidanez, bera ere oso ondo egon zuan nirekin.

Ez dakit nola, baina pixkanaka-pixkanaka gure adiskidetasuna galtzen hasi zen. Nik unibertsitateko lanak, berak bere gauzatxoak... Sarriro egiten genituen bilerak ez ziren hain inportanteak, ezta gure ateraldiak ere. Ni unibertsitatea bukatu eta beste hiri batera joan nintzen. Errudun sentitzen nintzen han bakarrik utzi bainuen. Ostiralero elkarri idazten genion eskutitz bana, baina batean ez nuen gehiago idatzi eta ez nuen gutun gehiagorik jaso. Hau aspaldian gertatu zen, baina oraindik badaukat gutunak gordetzen nituen kutxa. Batzuetan irakurtzen ditut eta pozik jartzen naiz. Pozik eta triste. Zergatik, Josu, zergatik...?

Bere argazkiak, gure argazkiak, ikustean, oso ondo sentitzen nauk. Zerbait berezia sentitzen diat. Agian

honen erruduna maitasuna duk. Agian maitemindurik nagok oraindik. Zergatik ez nioan ezer esan? Baina zer esan behar nioan? Ez nian ezer eskeintzeko, ez etxerik, ez dirurik, ez lanposturik...

Nola esan zezakean xakean jokatzera lanpostu on bat zela? Irabazten baldin banuen, dirua ematen zidatean, baina bestela..., bestela ezer ez! Zenbat hilabete egon ninduan ezer kobratu gabe? Ez zekiat. Baina maite nian. Orain ikusiko banu!... Orain hori guztia ezberdina duk. Orain etxea, dirua eta lanpostu ona bazeukaat. Orain ikusiko banindu!... Baina berak ez zekik nor naizen ni. Ni dagoeneko ez nauk Josu Larretxea. Orain John Silbianov nauk, xake jokalaria ospetsua. Dagoeneko ez nauk gizontxo hura, orain maisua nauk. Baina zertarako balio zidak berak ezagutzen ez banau? Elkarrizketa egiten didaten bakoitzean kazetaria bera izan daitekeela amesten diat. Baina nola gerta daiteke hori? Berak ez naik ezagutzen..., ez zekiak nor naizen...

Non ote dago Josu orain? Baliteke ospetsua izatea. Eta izena aldatu izan balu? Baina zergatik? Ez dut uste. Oso ondo sentitzen zen zegoen moduan eta ez zeukan bere iragana ahazteko arrazoirik. Noizbait ikusiko banu... Ez dakit zer egingo nukeen. Beragan pentsatzen dudana bakoitzean gero eta maiteago dudala pentsatzen dut. Ez dakit zergatik galdu nuen. Gehiegi maite nuelako, agian.

Orain lan egitea besterik ez zait geratzen. Lan egiten dudanean, gure lehenengo bilera gogoratzen dut. Beti xakelariei buruzko elkarrizketak egiten saiatzen naiz, Josu aurkitzeko itxaropenean. Baina gaurkoa azkenengoa izango da. Gero eta

tristeago nago elkarrizketak egiten ditudan bakoi-
tzean, eta bera aurkitzeko esperantza galdu dut.
Gaurkoa azkena izango da. Azkenengoa. John
Silbianov. Xakelari ospetsua. Nolakoa izango da?

*Pozik nagok. Une batetik bestera helduko duk kazeta-
ria. Esperantza galtzen hasia nauk, baina ezin diat
gehiago egin Silbia bilatzeko. Zergatik aldatu nian
izena? Aldatu izan ez banu, agian berak bilatuko nindi-
kek. Edo ez. Hori ez diat inoiz jakingo. Inoiz ez.*